



# **GIZARTE LANGILEAK**

## **2. ariketa**

**2021-10-29**



## 1. ARIKETA PRAKTIKOA

(7 puntu)

### Kasua

Mireiak premiazko hitzordua eskatu du Gizarte Zerbitzuetan, egun bizileku duen etxebizitzatik atera behar duelako laster, azpierrentamendu-kontratua amaitzen zaiolako eta alokairuaren titularrak, Juanek, ez diolako kontratua mantendu nahi. 15 egun ditu etxetik irteteko.

Mireiak 39 urte ditu, 3 urte daramatza bananduta eta bere bi seme-alaben zaintza eta jagoletza du: Luca eta María, 10 eta 5 urtekoak, hurrenez hurren. Hirurak Errenteriako Oiartzun kalean bizi dira etxebizitza partekatzen, 250€ ordaintzen ditu eta 2 logela, sukaldea, bainugela eta egongela erabiltzen dituzte.

Etxebizitza horretan bertan Juan, 42 urtekoa eta alokairu kontratuaren titularra, bizi da. Mireiak dio Juanek egoera normalizatua duela eta berarekin adiskidetasun harreman adeitsua duela.

Mireiak ez du lanik egiten, 3 kideren Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen du osorik; izan ere, duela 3 urtetik hona gutxienez ez du haurren aitarekin inolako harremanik izan, non dagoen ere ez daki gainera, eta ez dio Luca eta Mariarengatik mantenu-pentsiorik pasatzen.

DSBEaz gain, Mireiak Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) jasotzen du azpierrentamendua ordaintzeko.

Badira 2 urte baino gehiago udalerrian bizi dela baina Errenteriako Gizarte Zerbitzuetara jotzen duen lehen aldia da. Lehenago Donostian bizi izan zen eta bertako Gizarte Zerbitzuetan bai ezagutzen zuten Mireia.

Seme-alabak Koldo Mitxelena ikastetxean eskolatuta daude. Esan duenez, oso erraz egokitzen dira aldaketetara, maila akademikoan ez dute zailtasunik eta harreman ona dute gainerako ikaskide eta irakasleekin.

Mireiak ez daki artatzen ari den gizarte-langileak Errenteriako Udaltzaingoaren txosten bat jaso zuela atzo. Txosten horretan Donostiako Udaltzaingoak aurreko asteburuko larunbatean goizaldeko 02:30ean egin zuen esku-hartze bat aipatzen zen. Txostenean jasotakoaren arabera, Donostiako udaltzainek Zabaleta kalean bertan esku hartu behar izan zuten Mireiaren eta Juanen gizonezko lagun batek eskatuta. Gau horretan lagun horrekin eta beste pertsona batzuekin batera atera ziren. Lagun horrek Udaltzaingolari egindako telefono-deian esan zien Juan eta Mireia bikotekideak direla eta eztabaidan hasi zirela, ez zela lehenengo aldia eta une horretan Juan mozkortua eta oldarkor zegoela Mireiarekiko. Eskua altxatu ziola esan zuen eta beldur zirela egoerak ez ote zuen okerragora joko eta kontsideratu zutela Poliziari deitu behar ziotela animoak lasaitzeko. Udaltzainek txostenean jaso zuten behin Zabaleta kalera bertaratuta, bai Juanek bai eta Mireiak esan zutela ez zela ezer gertatzen ari, bikote-eztabaida bat zela, besterik gabe.



**Galderak:**

**1.1.- Kontakizun horren aurrean, nola helduko zenioke hasiera batean elkarrizketa honi?**

**- Adierazi zein diren mantendu beharko zenituzkeen 4 jarrera nagusiak (2 puntu)**




- Mireiari entzun ondoren, adierazi elkarrizketa horretan garatu beharko zenituzkeen funtsezko 2 aktuzioak. (2 puntu)


1.2.- Zure ustez, zein izan behar da esku-hartzearen helburu nagusia? Argudiatu ezazu?. (3 puntu)

--



**2. ARIKETA PRAKTIKOA**

**(3 puntu)**

**Aipatu itzazu Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagozkion prestazio teknikoak, eta identifikatu ezazu prestazio horietako bakoitzeko zerbitzu, programa edo baliabide bat:**



**3. ARIKETA PRAKTIKOA**

**(4 puntu)**

**Kasua:**

19 urteko gazte senegaldar bat etorri da hitzordura eta alojamendua eskatu du; ez dago errolatuta, baina 2 hilabete daramatza udalerrian bizi izaten, kalean lo egiten, alojamendu baliabideetan eta Errenerian bizi diren herrikide batzuen etxebizitzetan.

**Galderak:**

**3.1.- Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera, gazte horrek zer zerbitzu jasotzeko eskubidea izango luke EAEko edozein udalerritan? (2 puntu)**

**3.2.- Erreneriako Gizarte Zerbitzuetatik zehazki (2 puntu)**

**- Prestazio edo zerbitzuren bat eskuratzeko aukera izango luke? (0,25 puntu)**



**- Erantzuna baiezkoa bada, aipatu ezazu jaso ahal izango lukeen/lituzkeen zerbitzua/zerbitzuak.  
(0,9 puntu)**

**- Emango zenioke beste zerbitzuren baten berri? Erantzuna baiezkoa bada, esan zein edo zeintzuk.  
(0,85 puntu)**



**4. ARIKETA PRAKTIKOA**

**(8 puntu)**

**Kasua:**

Gizarte-langileak Errenteriako ikastetxe bateko aholkulari baten telefono-deia jaso du, eta bertan azaldu dio kezkatuta dagoela 7 urteko adingabe batekin, Ibairekin, ikasteko zailtasunak baititu.

Aholkulariak adierazi du ikastetxeak amaren aldeko aitona-amonen bidez izan duela harremana beti Ibairen familiarekin, eta haiek arduratzen direla egunero haurra eraman eta jasotzeaz. Ibaik desgaitasuna du heltze-garapenaren gabeziak eranginda, aitona-amonek ikastetxean aurkeztu zuten desgaitasun-ziurtagiriaren arabera. Tramitazio hori Errenteriako Gizarte Zerbitzuen bidez egin zen.


Ikasturtearen amaiera dela-eta, eta Ibairen zailtasun akademikoen kontuan hartuta, ikastetxeak (tutoreak eta aholkulariak) bilera baterako deia egin die gurasoei. Ikastetxeko profesionalak harritu egiten dira topatu dutenean amak muga handiak dituela, bai adierazpen emozionalean, bai hitzezko adierazpenan, hizkuntza pobrea du, oso apatikoa da, burumakur eta mugitzeko zailtasunak ditu, eta elkarrizketaren une batean "*nerbio-arazoak ditut eta Madrilen bihotzeko ebakuntza bat egiteko zain nago, eta ez dakit noiz izango den*". Ibairen aitak elkarrizketa osoan egon da, eta emazteari keinu bat ere egin dio, isilik geratu dadin eta ukatu egin du etxean inolako zailtasunik egotea.

Bilera egin eta hurrengo egunean, adingabea jasotzean, aitona-amonek aholkulariarekin hitz egin nahi dutela esan dute. Haurrarekin kezkatuta daudela adierazi dute, haurraz beraiek arduratzen direla diote, baina ez nahi luketen adina, suhiak ez baitie uzten. Era berean, alabak arazo fisikoren bat duela aipatu dute, baina ez dakite zein, eta laster Madrilen ebakuntza bat egingo diotela adierazi dute, eta haurra beraiekin eramango dutela.

**Galderak:**

**4.1.- Zer informazio jakinarazi beharko luke irakasleak? Diseinatu ezazu informazioa jakinarazteko irakasleak bete beharko lukeen txantiloia. (4 puntu)**







**4.2.- Zer lege-erreferentziak bermatuko lukete jakinarazpen hau aktibatzea? (2 puntu)**

**4.3.- Zein arrazoiengatik aktibatu behar da jakinarazpen hori? (2 puntu)**



**5. ARIKETA PRAKTIKOA**

**(8 puntu)**

**Kasua:**

Mariak 80 urte ditu eta Jose senarraren zaintzaile nagusia da. Josek 3. mailako mendekotasuna du onartua. Maria ondo dago kognitiboki, eta, maila funtzionalean, bere adinari dagozkion mugak ditu. Adierazi du ia ez duela familiaren laguntzarik senarra zaintzeko. Etxez etxeko Udal Laguntza Zerbitzuaren onuradunak dira, astelehenetik igandera, egunean 3 orduz, Joseren zaintza eta garbiketa pertsonalerako, eta Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa (FIZPE) jasotzen dute.

Maria hitzordura joan da, eta esan du gainkarga handia duela eta ez duela bere burua gai ikusten senarra zaintzen jarraitzeko. Alternatiba bezala egoitza aipatu du, baina errudun-sentimendu handia du, senarrak uko egiten baitio egoitza batera joateari.

**Galderak:**

**5.1.- Zer informazio jasoko zenuke baliabide egokienera edo egokienetara bideratzeko? (3 puntu)**



**5.2.- Egoera zehatz horren aurrean, zer baliabideri edo baliabideei buruzko informazioa eman beharko zenukeela uste duzu? Arrazoitu zure erantzuna (4 puntu)**

**- Baliabidea/k (2 puntu)**

**- Arrazoitu zure erantzuna (2 puntu)**



**5.3.- Egoitza batera joateko eskaerari bide emanaz gero, zein informazio orokor emango zenuke koordainketa-prozedurari buruz? (puntu 1)**